

Kontu kontari →

Anakoz Amenabar Gasteiz

Gasteiztik dabilenean, triziklo gainean joan ohi da Begoña Fernandez (Gasteiz, 1973), eta herri-ara, Oiardora doanean, berriaz, *Calimero* zaldia du zain. Ekinoterapiaren bitartez heldu zen zaldi gainean ibiltzera, eta hipika egokitu praktikatzan du gaur egun. Elbarritasuna izan arren, jarritako oztopo guztiak gaimditzeko prest da.

Lehenengo txapelketa jokatu duzu, Ultzaman, eta brontzea irabazi. Pozik lorutakoarekin?

Oso pozik. Hezte zirkuitu bat izan da. Partaide gutxi ginen nire modalitatean, egia esan, baina gerta zitezkeen hiru akats egin eta kanporatzea; beraz, oso pozik. Eta entrenatzailea, Carlos Ganzabal ere pozik dago loritu dudarekin.

Noiz ezagutu zenuen lehenengoz zaldien mundua?

Orain dela zortzi urte hasi nintzen Hondarribian ekinoterapia egiten, zaldien bitarteko terapia. Zaldi bat eramaten irakatsi zidaten, hipika zertxobait, eta ikusi zuten egin nezakeela. Zoritxarrez, utzi behar izan nuen, eta urte batzuk ezer egin gabe egon naiz. Zaldi gainean egoteko beharra neukan, halere; ikusten nuen onuragarria zela niretzat, eta, Gasteiz inguruan garai hartan halako ezer ez zegoenez, nire zaldi propioa izatea erabaki nuen.

Eta, dagoeneko, lehenengo txapelketa? Nolako izan da prozesua?

Zaldiarekin ibiltzeko laguntzaile bat behar nuen. Hondarribian ikasitakoarekin ez nuen benetako autonomia izatea loritu; han amaitu nuen, prozesu horretan geratu nintzen. Eta, kasualitatez, duela hilabete batzuk Carlos ezagutu eta harekin nabil hipika egokitua ikasten.

Astean birritan bisitatu ohi duzu Calimero. Ezagutuko zaitu jada?

Bai, noski. Ezagutzen nau. Zaldi gainean ibiltzearekin batera harekin hainbat ariketa ere egiten ditudalako. Normalean, oso garrantzitsua da hasi aurretik garbiketa egitea, goitik eta behetik, eta horrela nire giharrak ere mugitzen ditut. Aulkia eta aho-uhala jartzeko ere koordinazioa behar dira, eta, hasieran laguntza behar nuen arren, orain bakarrik egin dezaket.

Zaldi gainean arin joatea gustatzen omen zaizu...

Normalean poliki noa zaldi gainean, eta trostan pixka bat. Kostatzen zait, baina gero eta hobeto egiten dut. Txapelketan lau maila daude, elbarritasunaren arabera, eta ni lehenengoan nago, zailtasun gehien dituztenen artean. Lehen mailakoak poliki goaz, baina niri trostan gustatzen zait, beste sententzia bat da.



CELESTERIBO

Begoña Fernandez • Irakaslea eta hipika zalea

Brontzeko dominarekin heldu berri da Ultzamako Egokitutako Hipika Txapelketatik; urteetan zaldiekin tratamendua egin eta gero, gaur egun kirola eta zaletasuna uztartzen ditu.

«Hainbeste borroka egin eta gero, zaldiarekin gozatzeko garaia da»

Beraz, onurak nabaritu dituzu zaldiekin zabilzanetik?

Bai, gauza batzuk errazago egiten ditut. Baina, batez ere, autoa gidatzean nabaritu dut. Duela hamar urte dut karnefa, eta orain autoa gehiago hartzen hasi naiz. Beldurra nion kotxeari, ez nituen ibilbide luzeak egiten, eta ekinoterapiarekin hasi nintzenetik, beste lasaitasun bat daukat, konfidantza gehiago dut nigan. Onura, halere, ez dut nabaritu bakarrik egiten ditudan gauzetan; lehen, jarriera txarrean esertzen nintzen, esaterako, nekatu egiten nintzelako, eta orain zuzen daukat bizkarra. Eta emozionalki ere pozik

nago; lehen, denboraldi kaxkarrak izaten nituen.

Elbarritasuna duen edozeini gomendatuko zenioke, beraz?

Bai, noski. Eta ez bakarrik ekinoterapia. Hau hasteko modua baino ez da, nire ustez, baina baditu bere mugak. Heltsen da momentu bat beste zer edo zer nahi duzu-

■ Eginaren Eginez gutxitasun fisikoa duten elkarreko kidea zara. Zer eskakizun egiten duzue? Oraindik oztopo ugari ditugu. Alde Zaharrean, esaterako, kotxea aparkatzeko plazak kendu dizkigute, eta horrek zaildu egiten du mugikortasuna. Eta herriarrak ere kontzientziazioa falta da; tranbia edo autobusean badaude guretzat lekuak, eta askotan okupatuta aurkitu ditugu.

la, buelta txikiak emateaz eta pilotarekin jolasteaz aspertu zare-lako, eta, ahalmena baldin baduzu behintzat, kirol moduan hartzea gomendatuko nioke.

Zaldien zaletasuna izateaz gainera, irakaslea ere bazara.

Ibaiondo ikastolan nabil, Gasteizen, laguntza gela batean, eta oso pozik. Magisteritza ikasi nuen Gasteizen, eta Psikopedagogia gero, Donostian. Oso burugogorra naiz, egia esan, eta zerbait buruan sartzen zaidanean loritu arte aritzen naiz.

Nolako izan zen ikasketak garaia?

Zailtasunak izan nituen, noski, eta beti izan naiz irakasleekin ikasketak egokitzen buruz hizketan, adibidez ordenagailuz idazten uzteko. Niretzat errazagoa zen ordenagailuz idaztea, eta haietaz ulergarriagoa ere; batzuk, burugogor, ezetz, eskuz idatzi behar nuela. Beraz, denbora gehiago eskatzen nien, oso poliki idazten dudalako. Nire borroka, alde horretatik, izan ditut, baina uste dut badakidala oztopoak gaimditzen.

Zaldia da hurrengo erronka?

Bai, baina desberdina. Horrek poztasuna ematen dit. Niretzat gozatzeko modua da hau; gozatzeko garaia heldu zait, hainbeste borroka egin eta gero. Eta, benetan, nik Carlos ezagutu arte ez nuen pentsatzen txapelketa batera joateko gai izango nintzenik. Eta banago. Disfrutatzeke garaia heldu da. Carlosek beti irakatsi dit aurrera egiten, beste pausobat ematea posible dela; poliki, baina beti dago hurrengo pausobat emateko.

Aurrera begira, zer erronka dituzu?

Une honetan ekinoterapiaren ikasitakoa beste batzuei irakasten nabil, fisioterapeuta baten laguntzarekin. Bi haur ditugu, eta aukera hori zabaltzea da asmoa.

Segovian, laster, hurrengo txapelketa duzu.

Bai, hilabete honetan bertan. Eta aurrerago ere bada bat Gironan, baina ez dakit posible izango du-dan. Zaldia hara eramatea oso garestia da, eta, horretatik, ikusiko dugu. Ondo legoke babesle bat izatea, egia esan.